

OÑATIKO GAZTELEKUA PREBENTZIO NEURRIAK COVID-19ren AURREAN

- ❑ **Protokoloak kontrastatzea** hezitzaileekin, udaleko arduradunekin eta gurasoekin/tutoreekin.
- ❑ **Protokoloak eguneratzea** osasun-agintariek edo Aldundiko Gazteri Sailak unean-unean ematen dituzten jarraibideen arabera, baita ere hezitzaileen zein erabiltzaileen ekarpenekin.
- ❑ **Informazioa banatzea** honi buruz:
 - Higiene neurriak eta nola erabili NBE (Norbera Babesteko Ekipamenduak).
 - Irizpideak pertsona batek COVID-19 gaixotasuna izan dezakeela ondorioztatu ahal izateko.
 - COVID-19ko kasu susmagarri baten aurrean jarduteko jarraibideak.

GURASO ETA ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

- ❑ **Gaztelekuan parte hartzerako datozenean:**

- **Guraso, haur eta nerabeei baimena sinatzeko eskatuko zaie.** Baimen orrian, haien eta ingurukoen osasuna zaintzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen dabiltzala sinatu beharko dute. Baimen orokorra izango da eta behin sinatuta, egoera berri honetarako balio izango du.

Baimen orrian aspektu hauek zaintzen dabiltzala zehaztuko dira:

Nerabea edo haurra ez da Gaztelekura etorriko:

- *Sukarra badu.*
 - *Arnas sintomarik (eztula, arnasteko zailtasuna, eztarriko mina, hotzikarak, ondoeza, usaimen edo dastamen galera, okadak edo beherakoa...) baditu.*
 - *COVID-19ren sintomak dituen edo baieztatutako kasu batekin kontaktua izan badu.*
 - *COVID-19arekin gaixorik dagoen norbaitekin egon bada, ezingo du ekintzan parte hartu 14 egunez, nahiz eta sintomarik ez azaldu. 14 egun horietan jarraipena egin beharko du gaixotasun zantzurik agertzen diren ikusteko.*
- Haur zein nerabea ezingo da Gaztelekura sartu aurrez aipatzen den baimenik gabe.

Hezitzaileek zerbitzura datozen haur zein nerabe guztiei **temperatura hartuko diete**. Erabiltzailearen batek **sukarra izanez gero, etxera bidaliko** da eta guraso/tutoreei jakinaraziko zaie.

- **Ziurtatu** haur zein nerabeak baduela **maskara**. Haurra zein nerabea izango da maskara ekartzearen arduradun. Ez badu, eskuragarri izango du Gaztelekuan. Uneoro jantzita eraman beharko du.
- Hezitzaileek, haur zein nerabeak hartu ahala, eskuak garbitzera bideratuko dituzte (hidrogelarekin). Eskuak sarritan garbitzeko esango zaie, baita materialen bat manipulatzeko denean ere.

HEZITZAILEEK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

□ Eguneroko zerbitzuaren aurretik:

- Lanera joan aurretik, **hezitzaileak tenperatura hartuko** du, eta honako kasuetan, **ez da lanera joango**:
 - **Sukarra** badu.
 - **Arnas sintomarik** (eztula, arnasteko zailtasuna, eztarriko mina, hotzikarak, ahulezia orokorra, usaimen edo dastamen galera, okadak edo beherakoa...) badu.
 - **Kontaktua** izan badu **COVID-19ren sintomak** dituen edo baieztatutako kasu batekin.

Kasu hauetan guztietan zerbitzuko koordinatzaileari egoeraren berri emango dio eta osasun zentrora deituko du. Osasun zentroak esandakoa jakinaraziko dio.

- Eguneko **lan guztia ondo planifikatuta** eta beharrezko **materiala ere** lotuta izan beharko dute (desinfektatzailea, gela eta papera adibidez).
- Eraikinerara sartu ahala, **eskuak garbituko** dituzte eta beharrezko espazio zein materiala **desinfektatuko** da.

□ Zerbitzuak iraun bitartean antolaketa:

- Momentu oro **gogoratuko dira babes eta higie-ne neurriak**: maskara erabiltzea, eskuen garbiketa eta aurpegia edo begiak ukitzea saihestea.
- **Gel desinfektatzailea** momentu oro egongo da **eskuragarri** puntu estrategiko batzuetan.
- Kontaktua fisiko handia duten ekintzak saihestuko dira eta **hezitzaileen ardura** izango da **haur zein nerabeak maskara jantzita izatea**.
- Erabiltzaileek ezingo dute **sukalde, bideo gela zein goiko gelarik** erabili.
- Gaztelekuko **materiala ez da erabilgarri** egongo, Gaztelekuak antolatutako ekintzetarako izan ezean. Halakoetan, materiala erabili ostean hezitzaileak arduratuko dira desinfektatzeaz.
- Gaztelekuan **ezingo da jan**.
- Gaztelekuaren edukiera:
 - **Kuboan** gehienez 22 erabiltzaile + 2 hezitzaile
 - **Topalekuan** gehienez 28 erabiltzaile + 2 hezitzaile

□ COVID-19ko sintomak agertuz gero zerbitzuak iraun bitartean:

- **Haur edo nerabe batek** COVID-19aren sintomak baditu (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasunak...):
 - Taldetik **urrundu eta maskara kirurgiko** bat jarriko du.
 - **Aireztatutako gelara** eramango da.
 - Bere **guraso** edo **tutoreari deituko** zaio. Baita koordinatzaileari zein gazteria teknikariari ere.
 - Guraso edo tutorea etorri bitartean, hezitzaile soil batek artatuko du haurra zein nerabea eta **lasaitasun-mezuak** helaraziko dizkio.
 - **Osasun zentrorra** deituko da, dagokion jarraipena egin diezaioten.

- Kasuaren eboluzioaren arabera, **talde osoaren jarraipena** (haurrak, nerabeak eta hezitzaileak) egin beharko da osasun zerbitzu publikoak emandako irizpideak jarraituz.
- Atentzio honetan **sortutako hondakinak** (eskularruak, zapiak, maskarak), **poltsa batean** sartuko dira eta **ondo itxiko** da zakarrontzira botatzeko (errefusa).
- **Leku itxi batean** gertatu bada, lokala itxi, **garbitu eta desinfektatu** egingo da berriro erabili ahal izateko eta osasun zerbitzu publikoaren jarraibideak jarraituko dira.
- **Hezitzailearen batek sintomak** izanez gero:
 - **Koordinatzaileari jakinaraziko** dio eta **etxera** joan beharko du. Maskara jantzita mantenduko du ahoa eta sudurra estaliz, eta bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da.
 - **Bere etxera itzultzeko ondo ez badago, 112 telefonora** deituko du, eta lekuaren helbidea emango die.
 - **112ra deitzeko moduan ez badago**, lankideak egingo du, gaixoaren egoeraren eta COVID-19ren susmoaren berri emateko. Koordinatzaileari jakinaraziko zaio.
 - **Konortea eta arnasa galduz gero**, deitu azkar 112ra horren berri emateko eta Bihotz Biriketako Berpiztea (RCP) egin beharko zaio: horretarako ez erabili ahoz ahokoa eta **soilik bihotzeko konpresioak** egingo ditugu bular-hezurreko erdiko puntuan. **Kasu hauetan FFP2 edo KN95 motako maskara erabili** beharko dute bihotzeko konpresioak eta gertutik pertsona artatzen dutenek.
 - Atentzio honetan **sortutako hondakinak** (eskularruak, zapiak, maskarak), **poltsa batean** sartuko dira eta **ondo itxiko** da zakarrontzira botatzeko (errefusa).

NEURRI HIGIENIKOAK

Pertsonalak

- **Eskuak ura eta xaboiak** edo gel hidroalkoholikoarekin **garbituko dira**:
Ura eta xaboiak egonez gero, hauek erabiliko ditugu. Bestela, gel hidroalkoholikoa. Azken hau erabiliz gero, ez dira eskuak paperarekin lehortu behar.
- **Begiak, sudurra eta ahoa** ukitzea saihestuko da.
- **Azazkalak motzak** izatea eta eraztunik, eskumuturrekorik, erlojurik edo bestelako **apaingarririk** ez erabiltzea gomendatzen da eskuen garbiketa ez oztopatzeko.

Instalazioarenak

- Haur eta nerabeen eskura **gel hidroalkoholikoa** eta **zakarrontziak** egongo dira.
- Zerbitzua, ahal den heinean, **naturalki aireztatuko da**: leihoak eta atek, ahal direnean, zabalik egongo dira. Honez gain, Gaztelekuko aireztatze sistema uneoro egongo da martxan.
- Ateak **zabalik egongo dira**, aireztatzeaz gain, heldulekuak ukitzen ez ibiltzeko.
- Jardueretan **erabilitako materiala desinfektatuko** da.
- Zoru, ateen helduleku, eta oro har, **hainbat pertsonen eskuekin ukitu duten edozein objektu edo gainazal**etan **garbiketa areagotuko da**.
- Ahal denean, ez da materiala partekatuko, eta partekatzen bada, desinfektatzailea erabiliko dugu objektu komun horiek garbitzeko.

ANTOLAKUNTZA NEURRIAK

- Ohiko sarrera-irteera bideak erabiliko dira.
- Zerbitzuen sarreretan **hezitzaile bana** egongo da. Pertsona hau izango da sarrera eta irteeretan **segurtasun neurriak betearazteko eta jende pilaketak saihesteko** arduraduna.
- **Komunak itxita** egongo dira, eta banaka erabiltzeko irekiko dira. **Zerbitzu bakoitzeko komun bat** irekiko da eta pertsona arduradunak **gainbegiratuko** du. Pertsona hori arduratuko da erabili ondoren **desinfektatzeaz**.

PRESTAKUNTZA

- Haur eta nerabeen kontzientziazioa sustatzeko **kartelak** jarriko dira txokoetan.
- "**Segurtasun eta higiene arduradun**" **bat egongo da**. Haren eginkizuna izango da dokumentu honetan eta berau garatuko duten protokoloetan adierazitako neurriak betetzen direla bermatzea.
Hezitzaile guztiek, babes, segurtasun eta higiene neurrietan sakontzeko prestakuntza jaso dute.